

# LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez.</li> </ul>	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## «ARRAZOIA EGUZKIA BEZALAKOA DA: BATZUETAN JO EGIN GAITZAKE, BAINA EZIN DUGU HARTU»

Hausnarketa labur bezain sakonez hornitu du bere hirugarren liburua Iñaki Segurola azpeitiar idazleak, eta *Arrazoia ez dago edukitzerik* izenburua eman dio (Alberdania). Eguneroko gertaera eta egoeretatik abiatuta, gogoeta sorta bat eskaintzen digu oraingoan arrazoiaren, arauen eta gizartearen jarreraren inguruan. Nabarmendu du idazteko *berbatura* izeneko estiloa darabilela, hau da, literaturaren idazkera zurrunik aldendu nahi duen molde dinamikoagoa, hitzaren, berbaren bizitasunean oinarritua.

Liburuan gogoeta laburrak aurkituko ditugu, elkarren atzean jarriak, baina itxuraz bakoitzak hurrengoarekin inolako loturarik izan gabe. Gehienak ez dira aforismo izatera iristen, luzexegoak baitira, «aforismora heldu gabe, laburrean zer idatz nezakeen ikusi nahi nuen», azaldu digu Iñaki Segurola egileak. «Liburu oso bat aforismo hutsez betetzea lan nekeza da, bizitza osoa egin behar da horrenbeste material biltzeko; bestetik, gogoeta luzea egiteko asmorik ere ez neukan, beldur nintzen idazten hasi eta ez ote nintzen gehiegi korapilatuko». Hausnarketatxo bakoitzak ez dauka besteekin zerikusi zuzenik, baina denak elkarrekin hartuz gero, badauka hari bat: «gogoeta solteak daude, baina, oro har, badago gai bat, arrazoia, maiztxo agertzen dena, agian ez da liburu osoaren haria, baina bada soka lodixeago baten parekoa; arrazoiarekin behin eta berriz egiten dut topo».

Arrazoiak, eta bereziki arrazoia eduki beharrak, kezkatu egiten du Iñaki Segurola: «denok nahi izaten dugu arrazoia eduki, baina arazotsua gertatzen zait hori». Izan ere, Segurolak dioenez, «arrazoia ez da eduki daitekeen zerbait, berez dabilen zerbait da, harrapatu ezinezkoa, baina arrazoiaren bila joateko joera daukagu txikitatik, norik bere arrazoiak, ideiak, pentsamenduak... nahi ditu». Esamoldeak dio umeari arrazoia eman behar zaiola beti, baina Segurolak ohartarazten duenez, «ume horretatik gatoz denok, baina zerbait gehiago ere bagara, konturatzen gara arrazoia ezin dela lortu, badago hor zalantza bat». Hain zuzen, arrazoia eguzkiarekin parekatzen du, «eguzkiak noizean behin jo egiten gaitu, baina ezin dugu hartu, ukitu; arrazoia berdina da, akaso noiz

edo noiz joko gaitu, baina ezin dugu ukitu, eutsi, haren jabe izan».

*Arrazoia ez dago edukitzerik* liburuan, egia zurrunaren jabe direnei kritika egiten die Iñaki Segurolak, izan erlijiotik abiatutako egia biribilak zein zientziatik eratorritakoak, ez ditu aise onartzen: «Zientzia bera aztertuz gero, azaletik begiratuta bai, badirudi gauzak nola diren esaten zaigula, ondo frogatuta; baina ikerketa sakonak aztertuz gero, konturatuko gara zientziak esaten digula gauzak nola diren, eta baita nola ez diren edo nolakoak izan litezkeen ere, egia bakar bat ezin zehaztuta». Hor borroka bat ikusten du, dabilen arrazoiaren eta araututako arrazoiaren artekoa.

Berbatura hizkuntzaren arau zorrotzak ere ez dira Iñaki Segurolaren gustukoak, bereziki «akademikoen euskara batu, jaso eta landua» (porlandua dela dio). Literaturara egokitutako hizkera ere hila iruditzen zaio; hori dela eta, berak, literatura ez, berbatura egiten duela dio: «Berbaturarekin, idazteko era bizia adierazi nahi dut, bizkaierazko *berba* hitzetik sortu dut *-hitztura* itsusi geratzen omen zen-, *literatura* hitza letra hitzarekin dago lotuta, letra gauza hila da; berba, berriz, ahotik dator, bizia da». Horrela, ahazkotik eta euskaldunen senetik hurbilago egongo den idazkera aldarrikatzen du, «euskaldun petoak diren herrietan hazi garenok zerbait naturalagoa behar dugu, idazleok zor diogu euskaldun mota horri euskara biziagoa, graziaduna, ez literaturaren estilo geza».

«Hiruzpalau urtez ibili naiz gogoetak biltzen, etorri ahala batu ditut, ni ez naiz idaztera propio esertzen den horietakoa». Gogoeta bakoitzaren luzera ere pentsatu gabe etorri omen zaio, pieza laburrez osatutako zerbait egitea pentsatua izan badu ere. Gogoeta motzak izanagatik, ideia sakonak direla azaldu digu Segurolak: «Irakurraldi luzeegiak egiteko ez dela aproposa esango nuke, pixkanaka irakurtzeko lana da».

**PIEDRA, Dabi. Ortzadar, 2013ko martxoa. Egokitua.**

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer-nolako estiloa du Iñaki Seguroiak bere azken liburuan?

- a) Literaturaren ohiko moldeek izan ohi ez duten bezalako freskotasuna duena.
- b) Egunerokotasun zurrunetik haratago doazen gertakizunak dinamikotasunez kontaktzen duena.
- c) Gertakari jakin batzuen gaineko gogoeta hitzaren zolitasunean oinarritzen duena.

### 2. Nolakoak dira liburuko gogoetak?

- a) Aforismo izatetik oso gertu dauden pentsamendu korapilatsuak.
- b) Elkarrekin loturarik ez dutela ematen duten hausnarketa laburrak.
- c) Kasu bakan batzuetan nahasketa sortzerainoko esaldi konplexuak.

### 3. Zein da hausnarketen mamia?

- a) Arrazoiaren jabetza.
- b) Arrazoia ez izateak dakarren auzia.
- c) Besteen arrazoia ez onartzeak eragiten dion kezka.

### 4. Zer dio Seguroiak arrazoiak?

- a) Inguruan dabilen zerbait izanagatik, ez dela beti edukitzen.
- b) Nahiz eta gogorra izan, badagoela bera gabe bizitzerik.
- c) Ez dagoela izaterik, baina hura bilatzera jotzen dugula.

### 5. Nor gaitzesten du Seguroiak?

- a) Zientzia fedearen gainetik jartzen duena.
- b) Erljioan sinesten duena.
- c) Egia bat eta bakarra dagoela uste duena.

### 6. Zer dio idazleak zientziari buruz?

- a) Ezbairik gabeko arrazoiak ematen dituela.
- b) Egia biribila baino, horren zantzuak ematen dituela.
- c) Egia osoa xehatzen duela.

### 7. Zergatik ez zaio literatur estiloa gustatzen?

- a) Bizitasun gabekoa delako, artifiziala.
- b) Batasuna behar duelako, ulergarritasuna bermatzeko.
- c) Literaturak bizitasunean irabazi ahala ulergarritasunean galtzen duelako.

### 8. Zer lortu nahi du idazleak liburuan erabiltzen duen estiloarekin?

- a) Literaturari ere bizkaieraren jitea ematea, hangoen sena ere kontuan.
- b) Idatzian ere herri hizkeraren lekukotza areagotzea.
- c) Herri xehearentzat ere ulergarri gertatzea.

## 2. ariketa

**Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.**

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

**ZAHARKITZAPEN PROGRAMATUAK EZTABAIDA BERPIZTU DU**

Lurrun-eltzearen balbula belztua duzu. Barazkietan partikula ilunak ikusi ote dituzun, jan ote dituzun, kezkatan zara. Desmuntatu duzu delako balbula, garbitu duzu, janaria maneatu duzu. Belztua da berriro balbula... Ez zara hagitz gustura. «Eltze berria erosi behar dugu!» erran dute etxean...

**9** Orain dakigunez, arrazoiaren jabe dira, arrunt. Orain badakigu etxetresna elektrikoek, telefono mugikorrek, pantyek, iPodek, ordenagailuek eta errateko diren guzietan ere iraungipen-data jakina dutela, erabilera kopuru mugatua, ez direla «betiko», ekoitzi dituzten une berean programatu dutela, fabrikatzaileek beraiek, haien heriotza... Konponketa-lekuak desagertuak dira leku frankotan. «Zaharra bota, berria erosi» dugu oraingo legea. Anitzetan, merkeago da zerbait erostea, hura leheneratzen ibiltzea baino.

1928an sortu omen zen kontzeptua AEBn, garaiko aldizkari batean ekoizle-saltzaile halako batek aldarrikatu zuenez: «Alferrik galtzen ez den artikulua, produktua edo salgaia, hondamena da negozioentzat». Joan den mendeko 30eko hamarkadan, errateko, fabrikatzaile nagusiek erabaki zuten bonbillak ez zuela iraun behar mila ordu baino gehiago. **10** Ekoizleek, ordea, negozioaren etekin azkarrari opa zioten kontsumitzailearen beharrari begiratu beharrean, eta ehun urte ere irauten zuen bonbilla baztertu eta mila ordu irauten zuena saltzea adostu zuten. Ia mendea iragan denean, lanari lotu zaizkio kontsumitzaileak, egoera irauli eta itzularaztea xede.

2011n, *Compror, tirar, comprar* (Erosi, bota, erosi) izeneko dokumentala aurkeztu zuen Cosima Dannoritzer zinema-zuzendari alemanak. Ordu arte, anitzek ez zuten inoiz zaharkitzapen programatuaz solasik entzun. Jakina, oinezkoa aspaldi konturatu zen etxean zituen gailu teknologikoek garai batean baino bizitza laburragoa zutela. Materialen kalitateari egotzi ohi zitzaion produktuen iraupen ttikia. Dannoritzerren dokumentalak, ordea, bertzelako egia

erakutsi zuen. Sare sozialek egin zuten gainerakoa. Bolo-bolo zabaldu zen dokumentala, eta, batik bat, haren mezua: **11**

Badira, halaber, delako fabrikatzailearekin harremanetan jarri direnak ere; filmean ikusten ahal denez, batek, errateko, erreklamazio formala igorri beharrean, poema bat igorriko du, kexa aldarri. Anitz dira dokumentaleko ekintza moduak, eta filmaren eragina arrunt handitu da Internet bidez. **12**

Dokumentala erakutsi duten leku guzietan ere kezka eta eztabaida piztu da ikusleen artean. Nork beretik jardun du horretan. AEBn, deshazkundeaz hasi dira galdezka. Alemanek teknologiaren gaitzei eta kontsumitzailearen eskubideei eman diete, oroz gain, arreta. Frantzian, birziklatzea lehenetsi dute. Belgikan, dokumentalak eragin duen arrangurak legeria aldatzera eraman ditu agintariak, produktu baten erabilgarritasun-bizitza salgaiaren etiketak garbi jaso dezan.

*Erosi, bota, erosi* dokumentalak erakusten dituen irudietan bortitzenak Ghanakoak dira, inondik ere, Agboglobloshieko zabortegikoak, hain zuzen. Hantxe pilatzen dira europarron hondakin elektronikoak, hantxe biltzen dira ghanatarrak, metal bila. **13**

Uste genuen berdetasunaren aroan ginela, baina egunetik egunera gero eta arinago dabilen munduan bata bertzearen ondoan datoz berritasunak, hala produktu nola kontzeptuetan. Gunter Paulik, errateko, Ecover enpresa ekologikoa sortu zuen, aitzindari baita mundu-mailan. Hogeita hamabortz urte ere badira Pauli lanean ari dela, eta ekonomia berdearen alde egin du hasmentatik. **14**

Haren orde, ekonomia urdinaren alde ari da buru-belarri lanean. Lurra du zutarri Paulik, denendako nahi ditu produktuak, naturan eta zientzian oinarri izanen duten ekoizpen urdinak.

Paulik, bertzalde, egungo krisi latzari buruzko hagitz ikuspegi partikularra du. Haren irudiko, historian ikusten ahal dugunez, beti izan dira krisiak.

Oraingoan, ordea, krisiak bata bertzearen gainean heldu zaizkigu. «Krisia etxebizitza bakoitzean dago. Langabezia non, han da krisia. Eguneroko bizian irensten ditugun toxikoez sortzen duten giro osasunaren kontrako hori ere krisiaren parte da. **15** Kontsumitzaileak jakin behar du zer nahi duen, zer behar duen, zer girotan bizi nahi duen». Horrela eginez gero, gure buruak, eta mundua bera, salbatzeko gai izanen gara... menturaz!

Paulik ez du ontzat hartzen etiketa berdea duen bateriarik. Haren erranetan, produktu berdeak gutiago kutsatu ohi badu ere, beti da kutsagarri.

«Gutixko ebastez duelarik ere, ohoina beti da ohoin! Bateria berdea? Telefonía mugikorrari dagokionez, etsenpluko, bateriarik gabeko gailu elektronikoa da soluzio bakarra. Teknologia asmatu da orain baino lehen, aplikatu izan da, merkea da eta lehiakorra. Industriak, noski, ez dela egingarri dio, elektronika-enpresa guztiak bateriak saltzetik bizi baitira. **16** Jokorauak aldaraziko dituzten ekintzaile saiatuak behar ditugu».

**ARIZKUN, Jon. Administrazioa euskaraz, 2013ko urtarrila. Egokitua.**

## 2. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Afera gero eta latzagoa da, zabor elektronikoa urritu beharrean, gehiago sortzen ari baikara europarrak, etengabe.
- B.** Nola nahi duzu bertzela erran dezaten? Krisi-aroan garelarik, inork ez du galdu nahi 40.000 milioi bateria saltzeak dakarren dirua!
- C.** Alabaina, Edisonen lehenengoak mila eta bortzehun ordu iraun zuen!
- D.** «Lehen gauzek orain baino hagitx luzeago irauten zuten» ez da, bertzerik gabe, sasoi joan eta gero egin ohi den purrusta hutsala.
- E.** «Erosi, bota, erosi» bizi zara, bizi gara. Ez da halabeharra, ez da zoria, deusek ez du garai batean bezainbertze irauten. Hori diote adinekoek.
- F.** Errateko, filmeko informatikari errusiarraren oharrei jarraiki, zenbait erabiltzailek etxeko inprimagailua berrabiarazi du.
- G.** Banaka harturik, arrunt aise konponduko genituzke aferok, baina denak batera trumilka erortzen zaizkigularik, gure immunosistemari gogor erasotzen diote, estresa eragiten digute.
- H.** Dena dela, haren iritziz, ekonomia berdeak ez du etorkizunik «aberatsendako bertze inorentzako ez delakoz, eta erranak erran, jasangarria ere ez delakoz», dio berak.
- I.** Zenbait hiritan, gure organismoak nikotina gehiago barneratzen du uraren bidez, erretzaileen kearengatik baino.

### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

## 3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## BIZIDUNEN ERAGINA LURRAREN ERREGULAZIOAN: ADAPTAZIOA VS ERALDAKETA

Izaki biziduna definitzea ez da zeregin hutsala. Oraindaino biologoek ez dute lortu oinarriko kontzeptu horren definizio bateratzailea finkatzerik. Alabaina, badakigu biziaren berezko ezaugarriak direla, besteak beste, barne-inguruneko baldintza fisiko-kimikoak orekan mantentzeko gaitasuna (homeostasia) eta ingurunea eraldatzeko gaitasuna. Bizidunek, sistema irekiak diren heinean, ingurunearekin etengabe elkartrukutzen dituzte materia eta energia, baina non dago eraldaketa horren muga?

Duela lau hamarkada James Lovelock britaniar kimikari entzutetsuak planetako biziari buruz dugun ikuspegia aldatuko zuen hipotesia plazaratu zuen. *Gaia* izeneko hipotesiak defendatzen du izaki bizidun anitzek beren ingurunetik bizi-baldintza hobekitzeko modu kolektiboan eragiten dutela eta, haratago, biziak berak planetako baldintza fisiko-kimikoak erregulatu eta kontrolatzen dituela. Teoria horrek filosofiari eta erlijioari dagozkien konnotazio nabarmenak dituenez, zientzialari gehienek bizkarra eman zioten. Gainera, Lovelockek ukatu arren, eboluzionismoaren oinarriak kolokan jartzen zituen: bizia, milaka urtean, inguruneko baldintza fisiko-kimikoen arabera moldatzen joan da. Izatez, planeta-mailan jardun dezaketen erregulazio-mekanismoak aztertzea oso zaila da eta oraindik gutxi dakigu sistema osoa arautzen duten zikloi buruz.

Lurraren atmosferaren konposizioa espero zitekeen oreka termodinamikotik kanpo dago. Oxigenoak, gas oso errektiboa denez, beste elementu batzuekin konbinatzeko joera du; beraz, arruntena bere kontzentrazioa oso baxua izatea litzateke. Aitzitik, oxigenoak, gutxi gorabehera, Lurreko atmosferaren % 20 osatzen du. Gehiegizko kontzentrazio hori landareen eta fitoplanktonaren jardueraren fotosintetikoaren ondorioa da. Lurraren jatorrizko atmosferaren konposizioa gaur egun dugunaren aldean oso bestelakoa zen. Duela milaka milioi urte, lehen organismo fotosintetikoek oxigenoa askatu zuten metabolismoaren bigarren mailako produktu gisa, eta atmosferaren osagaiak pixkanaka aldatu ziren. Gaur egun, atmosferako oxigeno-

kontzentrazioa planeta osoan gas hori ekoitzi eta kontsumitzen duten organismoen arteko balantzearen arabera da. Era berean, atmosferako metano- eta sufre-kontzentrazioak izaki bizidunen mendeko dira hein handian.

Bestalde, gure eguzki-sistemako eguzkia gaztea da (5.000 milioi urte) eta hazkunde fasean dago. Gauzak horrela, milaka urtean, Eguzkitik Lurrera iristen den energia erradiatzailea pixkanaka handituz joan da, baina horrek ez du eragin zuzenik izan Lurraren tenperaturan. Aro guztietan, glaziazioaldiak barne, planetaren historia islatzen duten klima-erregistroek adierazten dute Lurraren tenperatura konstante mantendu dela gutxi gorabehera. Gertakari horren atzean, planetaren autoerregulazio-mekanismoak egon daitezkeela uste da eta izaki bizidunen eragina funtsezkoa izan daitekeela.

Bizidunek planetan eragina dutela ukazina da, baina oreka globala mantenduko zukeen sistema autoerregulatuari buruz hitz egiteko, planetako organismo guztien arteko erlazioa edo komunikazioa beharrezkoa litzateke eta balizko sistema horren konplexutasuna ulertu eta frogatzetik oso urrun gaude. Zoritxarrez jende askok Gaia makrosistemaren ideia izaki biziduntzat hartu du, baina kontuan izan behar da, bizidun guztiak sistemak izan arren, sistema guztiak ez direla bizidunak. Ezin da ahaztu biziak ingurunea borondatez baldintzatu eta eraldatzen duela adierazteak biologia ebolutiboak ezarritako printzipioak urratzen dituela.

Horren harira, Harry Oduro zientzialariak zuzendutako lantaldeak argitaratu berri ditu klimaren erregulazioa aztertzeko egindako ikerketaren emaitzak. Emaitzen arabera, itsasoan dagoen Dimetilsulfoniopropionatoa (DSMP) hainbat itsas fitoplankton-taldek ekoizten duten sufre-konposatua da. DSMPk organismo horiek babesten ditu erradiazio ultramoretik, izoztetik eta bat-bateko gazitasun-aldaketetatik. Sufre-molekula hori, hainbat erreakzioren bidez, uretan askatzen den dimetil sulfuro (DMS) bilakatzen da eta, era berean, bigarren molekula hori atmosferara barreiatzen da. Oxidazio-erreakzioak bitarteko, DMS

azido metasulfonikoan (MSA) eta sulfato-partikula esekietan (aerosola) deskonposatzen da. Azken konposatu horiek uraren kondentsazio-nukleoak dira; hau da, eguzki-erradiazioa islatzen duten hodeien eraketa bultzatzen dute eta, ondorioz, ur-azalaren beroketa eteten dute. Haatik, ur-azalaren temperatura-murrizketak DSMP ekoizten duen fitoplankton kopurua ere jaisten du, eta temperatura berriro igotzen da. Horrela, norabide batean edo bestean gertatzen diren aldaketak direla medio, DSMP molekularen ekoizpenak ur-azalaren oreka termikoa erregulatzen du.

Oduroren taldeak urrats garrantzitsuak eman ditu erregulazio-sistema konplexu horren

funtzionamendua ezagutzeko. Bada ikerketa horren emaitzek Gaia hipotesia baieztatzeko balioko dutela esan duenik. Alabaina, klimaren autoerregulazio-sistema ezagutzeko beste horrenbeste ikerketa egin beharko dira oraindik, eta emaitzen eztabaidek luze joko dute. Beste behin ere agerian geratu dira biziak maila globalean duen eraginaren garrantzia eta gai horrek komunikabide batzuetan eragiten dituen gaizki ulertuak.

GOIA, Asier. «Gaiak.net», 2013ko ekaina. Egokitua.

### 3. ariketa. Aukeratu erantzuna

#### 17. Zer da izaki biziduna?

- a) Ezaugarriak bai, baina definizio zehatzik ez duen kontzeptua da.
- b) Ikuspuntu zientifiko hutsa duen sistema irekia.
- c) Biologo gehienen iritziz, sistema zehaztezina.

#### 18. Zer zioen James Lovelock kimikariaren hipotesiak?

- a) Biziak moldatzen duela planeta, eta beraren mende dagoela inguru fisiko-kimikoa.
- b) Planetako izakiek baldintza fisiko-kimikoak kontrolatu behar dituztela, biziari buruzko ikuspegia aldatu nahi bada.
- c) Izakiak modu kolektiboan jardun behar duela planetaren baldintza fisiko-kimikoak erregulatu nahi izatekotan.

#### 19. Gaia izeneko hipotesiak zer dela eta jartzen omen zuen kolokan eboluzionismoaren teoria?

- a) Biziaren bilakaera filosofian eta erlijioan oinarrituta azaltzen saiatu zelako.
- b) Hipotesi horren arabera, bizia planetako baldintzetara moldatu beharrean, biziak berak eragiten duelako ingurunean.
- c) Planetan aritu daitezkeen erregulazio-mekanismoak aztertu ondoren, sistema arautzen duen zikloi buruzko zalantzak argitzen ez dituelako.

#### 20. Zer esaten da Lurreko atmosferaz?

- a) Landareen fotosintesian, eragina duela atmosfera osatzen duten osagaien kantitatea orekatua ez izateak.
- b) Fotosintesi-prozesuak eraginda, atmosferaren % 20 oxigenoa dela.
- c) Oreka termodinamikoa sortzeko, landareek jarduera fotosintetiko aktiboagoa izan beharko luketela.

#### 21. Nolakoa da gaur egungo atmosfera?

- a) Organismoek eragindako oxigenoaz eta bestelako osagarriez eratutakoa.
- b) Lehengoa ez bezalakoa, hau da, organismo fotosintetikoek isurtzen duten sufrez osatutakoa.
- c) Izakiok kontsumitutako oxigenoaren, metanoaren eta sufreakon kontzentrazioaz eratutakoa.

**22. Zer dela eta mantendu da planetaren temperatura konstante?**

- a) Energia erradiatzailearen hazkundeagatik.
- b) Baliteke glaziazioek eraginda izatea.
- c) Planetaren beraren kontrol-ahalmenagatik.

**23. Zergatik ezin da frogatu testuan aipatutako berezko erregulazio-sistema?**

- a) Sistema guztiak bizidunak ez direlako.
- b) Bizidunok planetan eragin handiegia dugulako.
- c) Sistemen arteko harreman-sarea konplexuegia delako gizakien ulermenerako.

**24. Zer da DSMP?**

- a) Itsas organismo batzuek uraren beroketa eteteko sortzen duten konposatua.
- b) Fitoplankton talde batzuek atmosferan barreiatzen duten sufre-konposatua.
- c) Zenbait erreakzioren ondoren, ur-azalaren beroketa eragozten duen sufre-molekula.

**25. Zer dio artikulgileak Oduroren ikerketaz?**

- a) Gaia izeneko hipotesia baieztatzen duela, nahiz eta komunikabide batzuek horrelakorik uste ez izan.
- b) Oduroren ikerketa abiapuntu bat besterik ez dela, ikuspegi berritzaile bat.
- c) Ikerketa horren emaitzek izaki bizidunen arteko elkarreragina hobeto aztertu behar dela berresten dutela.



## Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - eskatutako guztiari erantzun diozun: egokitasuna
  - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
  - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

## 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.

- GAIA:** Zuen erakundeak lan jakin bat egiteko azpikontratatu duen kanpoko enpresa batek ez du hitzarmenean jasotakoa bete, ez egitekoei, ez epeei dagokienez. Horrek ondorio larriak eragin dizkizue eta kezkatuta zaude.
- Idatzi gutuna enpresa horretako arduradunari, gogorarazi hitzarmeneko baldintzak, arrazoitu zure kezka, eta ohartarazi hitzartutakoa ez betetzeak zer ondorio izan litzakeen.

**2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako**

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu hitzez hitz kopiatu.

**TESTU AIPAMENAK****1.****GAZTEEK ETORKIZUN ILUNA?**

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ondorioztatu du 30 urte baino gutxiago duten EAEko gazteen emantzipazio-tasa % 18,5 dela; alegia, 30 urte baino gutxiago dituzten hamar gaztetik bik ere ez dutela bakarrik bizitzeko aukerarik.

Kontseilu horrek gertaera honen arrazoiak ondorengoak direla dio: krisi ekonomikoa, langabeziaren hazkuntza, lan-baldintza prekarioak, eta bereziki, higiezin merkatua. Nonbait, EAEko adin horretako gazteen % 63,8k ez du soldatarik kobratzen, eta kobratzen dutenek % 161,21 gehiago kobratu beharko lukete etxe bat erosi ahal izateko.

Berri honek egonezina eragiten didala ezin uka: Zer-nolako gizartea sortzen ari gara? Emantzipaziorik gabe, norbere bizimoduaren jabetza hartzeko askatasunik gabe, lor al liteke zorionik? Hala ez bada, nolako etorkizuna dauka gazteak zaintzen ez dituen gizarteak?

**SAROBÉ, Aitziber. Berria, 2013ko iraila.  
Egokitua.**

**2.****ZORU ETIKOA:****BAKERAKO BALDINTZA ETA BIDEA**

Zoru etikoaren ideia edukiz betetzeak gertatutakoaren egia historikoa izan zen bezala onartzea eskatzen du, egitateak ezkutatu, desitxuratu edo justifikatu gabe. Argi dago bakea nahi dela, sufritu ditugun horrenbeste gertaera bidegaberan aurrean norberak izandako postura errebisatu gabe.

Gure harreman sozial eta politiko askotan, banakakoetan zein kolektiboetan, kontraesan handiak izaten ditugu erlazio horiek praktikatzerakoan. Ez dago sobera geure buruari zintzo galdetzea zer-nolako osasun demokratikoa duen gure elkarbizitzak.

Ez al ditugu guztiok ikusten Euskal Herrian, aldarrikatzen den zoru etiko horrek eskatuko lukeen etika humanista eraikitzearen orde, liskarrean eta gorrotoan oinarritutako elkarbizitza elikatzen duten hainbat jarrera eta portaera? Ala, etikaren erreferentzia propaganda ideologiko hutsa besterik ez da arerioari emandako kolpea ezkutatzeko?

**Berria, 2013ko abendua.  
Egokitua**

3.

**OSAKIDETZA EUSKALDUNTZEKO  
NEURRI ZEHATZAK**

Euskararen normalizazio-prozesuan Osakidetza bezalako zerbitzuak euskalduntzea garrantzitsua da oso: batetik, egunero milaka herritarrek erabiltzen duten oinarriko zerbitzua delako, eta, bestetik, bertan milaka langilek lan egiten dutelako. Gainera, osasun-asistentzia oinarriko eskubidea da. Ez dago osasun-asistentzia duina jasotzerik ama hizkuntzan ez bada.

Hamabost edo hogeit hamar urteko epean langile eta zerbitzu guztiak euskaldunak izatea lortzeko, gaurdanik aldaketak egin behar dira kontratazio-politikan. Ez du zentzurik langileak euskalduntzera baliabide garrantzitsuak bideratzen diren bitartean, euskaldunak ez diren langile berriak kontratatzea. Elebidunak ez diren langileen sarrera noiz itxiko den erabaki beharra dago. Neurriak progresibotasuna izan beharko du eta urte batzuetan lan-deialdian euskarak meritu gisa duen balioa handitzen joan beharko da.

**KONTSEILUA.** <erabili.com>, 2014ko otsaila.

5.

**HONDAKINEZ GIZENDUTAKO  
TXERRIAK**

Datuen arabera, AEBk eta Europak zaborretara botatako elikagaien laurdenarekin goseak diren mila milioi pertsona elika litezke.

*Pig Idea* egitasmoaren jarraitzaileek aldarrikatzen dutenez, ingurumenaren, laborarien eta munduan gose direnen mesederako da aziendak jakien soberakinez bazkatzea.

2001ean, baina, debekatu egin zuten txerriak soberakinez elikatzea, sukar aftosoa zela eta.

Haien ustez, arrisku hori ekiditeko, aski da soberakinok pasteurizatzea, eta txerriei ematea da zakarretara botatako jakiak erabiltzeko modu garbi, eraginkor eta merkeena. Betiere, behar duten gizakiei eskaini ondoren, janari-bankuak lehenesten baitituzte.

**BREA, Unai. Argia**, 2013ko iraila.  
Egokitua

4.

**DOPINA ETA ISILTASUNA**

Espainiako estatuarentzat kirola ezinbesteko bihurtu da nazioartean bere irudia zabaltzeko: Espainia marka. Baina, mundua erretxinduta dago ikusita Espainiako estatuak nola kudeatzen duen dopinaren auzia. Izan ere, positiborik izanez gero, Espainiako presidenteak zein oposizioko buruak laster egiten dituzte adierazpenak kirolarien alde, Contadorren kasuan adibidez.

Inork irudika lezake Obama Armstrongen aldeko adierazpen publiko bat egiten edo Merkel Ullrichen alde ateratzen?

*Porqué fracasan los países* liburuak azaltzen duenez, sistema demokratiko sendoa duten herriek ez dute oztoporik --lehiakortasunaren kontra jokatzearren, adibidez-- beren enpresaririk handienak eta arrakastatsuenak auzitegiara eraman eta zigortzeko, eta beste horrenbeste gertatzen da herriotan beren kirol mitorik handienetakoekin ere.

**ARANZABAL, Joxe. Sustatu**, 2013ko iraila.  
Egokitua.

6.

**EAE, BIZTANLEAK GALTZEN**

Azken hamarkadetan bizitako hazkunde demografikoa etetear dago Euskal Autonomia Erkidegoan. Hori diote, behintzat, argitaratu berri diren datuek: biztanleria galtzen hasi gara eta hazkunde natural negatiborantz goaz. Hau da, hiltzen direnak jaiotzen direnak baino gehiago izango dira laster.

Jaiotzen galera lotuta dago ama izateko adinean dauden emakume kopuruaren beherakadari. Izan ere, 1980 eta 1990 hamarkadetako jaiotza-krisien belaunaldikoak dira gaur egun ama izateko adinean dauden emakumeak. Hutsune hori etorkinek estali izan dute nolabait, baina egun migrazioaren saldoa ere negatiboa da. Gauzak horrela 2014. urtean ama izateko adinean dauden emakume gutxiago izango dira.

**<Sustatu.com>**, 2013ko abendua.  
Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Arrazoa eguzkia bezalakoa da: batzuetan jo egin gaitzake, baina ezin dugu hartu»

1.	A	2.	B	3.	A
4.	C	5.	C	6.	B
7.	A	8.	B		

■ **2. ariketa:** txertatu testu zatia.

■ **Irakurgaia:** «Zaharkitzapen programatuak eztabaida berpiztu du»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	E	C	D	F	A	H	G	B

Soberakoa	I
-----------	---

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Bizidunen eragina lurraren erregulazioan: adaptazioa VS eraldaketa»

17.	A	18.	A	19.	B
20.	B	21.	A	22.	C
23.	C	24.	C	25.	B